

## ***Basauri: urtebetez 30 km/h-an.***

2016ko otsailean urtebete egin du Basauriko herrigunean ibiltzeko 30 km/h-ko abiadura-muga ezarri zela. Herri-mugimenduak eta mugimendu ekologistak sustatutako proposamen horren helburua da, batetik, norbanako guztien bide-segurtasuna hobetzea; eta bestetik, trafikoak eragindako kutsadura (airearena zein akustikoa) gutxitzea.

Gaur, urtebete beranduago, eta 2015eko trafikoari buruzko txostena eskuan, zera ondorioztatu du Sagarrak-Ekologistak Martxanek: 40 km/h-ren ordean seinaleek 30 km/h-ko muga jasotzea ez dela aski, araua beteko dela bermatzeko. Beste urrats bat eman behar da: neurri hezitzaileak ere behar dira (herritarrak sentiberatzeko eta kontzientzia harrarazteko), eta, horiekin batera, muga betearaziko duten jarduketak egin behar dira galtzadan bertan.

2015eko datuak ez dira onak; horiei buruz hausnartu, eta proposamen berriak egin behar ditugu. Iaz 79 istripu egon ziren, eta 62 biktima, aurreko urteen antzera. Horrek agerian uzten du zorrotz jokatu behar dugula, hobetu nahi badugu. Harrapaketen kopurua ere 2014koaren antzekoa izan da. 62 biktimetatik, 21 oinezkoak ziren (2, gainera, larriki zaurituak izan ziren), eta 14, zebrabideetan harrapatu zituzten (areago: 1, espaloian harrapatu zuten). Aipagarria da, era berean, herriko zeharbideetan gertatutako inzidentzien kopuru handia, trafiko-istripuen berdintsua, izatez (kopuru totalaren % 75): Agirre Lehendakariaren kalean, Kareaga Goikoan, Kale Nagusian, Nafarroa kalean, Gernika kalean... Horietan guztietan pilotutako istripuen kopuruak adierazten digu bertan jarduketa bereziak egin behar direla.

Beste datu esanguratsu bat: Bide-segurtasunaren Legea urratzeagatiko 2.381 salaketak. Horietatik % 80, behar bezala ez aparkatzeagatik jarri dira. Gehiegizko abiaduragatiko salaketak % 3 baino ez ziren izan (San Migelera doan errepedeko radar-kontrola; Etxerrekoa; Matxixako kalekoa). Herrigunean, aldiz, ez zen abiadura-kontrolik ezarri.

Datuok berretsi egin digute seinaleztatzeak ez duela bermatzen araua beteko dela, bestelako neurriak ere ezarri behar direla.

Uste dugu beharrezkoa dela gizarteari kontzientzia harrarazteko lana egitea. Ezinbestekoa da araua betetzeko lankidetzak aktiboa ahalbidetuko duen komunikazio, informazio eta sentiberatze kanpaina abiaraztea.

Seinaleak hobetu beharra dago, ikusgarriago egin, eta, toki batzuetan, ugaritu ere bai (seinale bertikalak: herriguneko sarbideetako ateetakoak; abiadurari buruzko informazioa emateko radarrak).

Bide publikoa ere moldatu beharra dago, espazioa berrantolatu, bidea publikoaren erabileretan hierarkia irauli. Eta, nola ez, trafikoa baretzeko neurri gehiago ezarri behar dira —zebrabideak altxatzea, sakanguneak, moteltzaileak...—.

Mugikortasun-eredu berria sustatu beharra dago, oinezkoen ahalduzetatik abiatuta: hainbat eremu publiko eraldatu behar dira, mugikortasun aktiboa sustatzeko, bizitza-ohitura osasuntsuak bultzatzeko eta sedentarisismoari aurre egiteko.

Basauriko herrigunea zeharkatzen duten motordun ibilgailuen kopurua murriztu beharra dago.

Aruak betearazteko kontrol-neurriak areagotu beharra dago.

Udaleko Iraunkortasun Kontseilua batu beharra dago, Mugikortasun Jasangarriko Plana (2006-2016) ebaluatzeko, eta aldi horretarako jarduera-ildoei buruz hausnartzeko (horietako bat zen trafikoa baretzeko neurriak hartzea). Egindako eta egin gabeko lanak aztertu beharra dago, helburu berriak proposatu; eta helburu horiek gauzatzeko jarduketak aurreikusitako beharra dago.